

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE  
GAJETAKO SAILAGizarte Gaietako Sailburuordetza  
Gizarte Ongizateko ZuzendaritzaDEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y  
ASUNTOS SOCIALESViceconsejería de Asuntos Sociales  
Dirección de Bienestar Social

Vitoria/Gasteiz, 2008ko azaroaren 28a

Adiskide agurgarriak,

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ENPRESA BOLUNTARIOTZA SUSTATZEKO I. GIDA**

lantzeko prozesua hasiko dela jakinarazi nahi die Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Ongizateko Zuzendaritzak Boluntariotza Erakundearen Errolda Orokorrean sartuta dauden erakundeei.

Enpresa-boluntariotza honela definitzen da: *“enpresaren ekimenaren eta giza kapitalaren bidez inplementatuta eta, besteak beste, gizartea, asistentzia, ingurumena, hezkuntza eta kultura garatzen laguntzera bideratuta dauden ekintzen multzoa. Ekintza horietan, enpresarekin zuzeneko lotura duten pertsonak (langileak eta erretiratuek) edota zeharkako lotura dutenak (senitartekoeak) esku hartzen dute. Helburua langileak mobilizatzea izango da, enpresaren ingurunea hobetzen saia daitezen”*. Era horretan ulertutako enpresa-boluntariotzak garapen handia izan du azken urteotan.

Baliabideen Gidak bi atal izango ditu. Alde batetik, Enpresa Boluntariotzak Enpresen Gizarte Erantzukizunaren esparruan duen esanahiari eta garrantziari buruz kontuan hartu beharreko **oinarrizko kontzeptuak** zabalduko dira. Bestetik, irabazi-asmorik gabeko erakundeei enpresetako boluntarioen lankidetzak eskatzen duten **interes orokorreko programak zabaldu ahal izango dituzte**.

Enpresa Boluntariotzako programak garatzea hainbat ikuspuntutatik izan daiteke onuragarria. Programa garatzen den komunitatearentzat, lagungarria da boluntariotzaren hazkunde estentsiborako, baita pertsonak beren lan-inguruneetan hartzen dituzten erabakien inplikazioen inguruan sentsibilizatzeko ere. Gainera, gizarte-erakuntza lortzeko beste eragile bat izatea giza baliabideen eta baliabide ideologikoen eta ekonomikoen ekarpen handia da. Irabazi-asmorik gabeko erakundeentzat, berriz, honako onura hauek dakartza: zerbitzuei **gauzak laguntzea, arazoak dituzten kolektiboekiko sentsibilizazio handiagoa izatea, eta XXI. mendeko boluntariotzaren eta lankidetzaren modu berriei buruzko barne-gogoeta egitea**.

Gidarako informazioa ematen parte hartu nahi izanez gero, erantsitako fitxa bete daiteke, edota fitxa hori <http://www.euskadi.net/voluntariado> web-orritik jaitsi (Boluntariotzaren II. Euskal Planari eskainitako ataletik) eta beharrezkoa den informazioa gaineratu daiteke. Fitxa bete ondoren, posta elektronikoko honako helbide honetara bidal daiteke: [idoia-ebro@ej-gv.es](mailto:idoia-ebro@ej-gv.es). Bestela, faxez bidal daiteke, honako zenbaki honetara: 944257096.

**Fitxak jasotzeko epea 2009ko urtarilaren 16an amaituko da.**

**Ekimen hori Boluntariotzaren II. Euskal Planaren 1. Ildo Estrategikoaren Berariazko 3. Helburuan kokatuta dago.**

Adeitasunez,

Mª Elena Ayarza Elorriaga  
Gizarte Ongizateko Zuzendaria / Directora de Bienestar Social